

## BALIO PROPOSAMENA

### • Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure proiektua gehuen bat, baserri zein herri bakartietan bizi direnentzat dago zuzenduta. Hauei energia jren inguruan laguntza bat emateko. Izan ere hainbat baserri urrunetan, urteko momentu batzuetan, gorriak ikusi behar izaten dituzte, eguraldi txarra egiten duenean, argirik gabe geratzen dia maiz. Neguan askotan suaz bakarrik baliatzen dira bero mantentzeko eta honen aurrean berogailua eta gasa errazago lor dezaten nahi dugu.

Honetarako, baserri zein etxe hauek, belaze eta toki haundia izaten dutenez kanpoan, toki hauek aprobetxatuz bertan panel batzuk eraikitzea. Panel hauek berrerabilitako produktuekin eraiki nahi ditugu. Ondoren energia hau zuzen zuzenean etxera iritsiko da, eta urte guztian zehar izango dute energia inongo arazorik gabe. Hasiera batean panela eraikitzeak dirutza haundia eskeini behar zaiola pentsa genezake, baina hortan ere lagundu nahi dugu, izan ere gure helburuetako bat, panel hauek material berriztagarriaz egitea da eta.



### • Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Nire ustez, horrelako leku urrunetan bizi direnek, ez dute behar izaten duten atentzioa jasoten. Honen aurrean, horrela garrantzitsuago sentitu daitezke, askoz ere bizi atseginago bat izan dezakete ingo esfortzurik egin gabe, eta gainera energia hau agian beraien nekazaritzarako ere erabili ahal izango dute, argi indarra ordaindu beharrean panel hauez baliatuz. Pentsatzen dugu hasiera batean panelaren eraikuntzak ez diela grazia haundirik egingo, baina inbertsio txiki bat dela kontuan hartzea lortzen badugu, eta etorriko diren etekinak oso onuragarriak, suguru gaude pixkanaka geroz eta jende gehiago animatuko dela.